

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Gasteizko udalerriko balioeztapan txostenetik sortutako katastro balioak bulegoan bertan jakinaraztea

Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 22ko 158/2016 Erabakiaren bidez, Gasteizko katastro balioeztapan txosten berria onartu zen, zeina aldatu egin baitzuen Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 24ko 301/2016 Erabakiak, V. eranskinean erdisotoaren gainean egiten den definizioari dagokionez. Hortik sortutako katastro balioak etxez etxe interesdunei jakinaraztearekin batera, honen bidez iragartzen da aipatutako balio horiek bulegoan bertan ere jakinaraz daitezkeela.

Horretarako, ondasun higiezinaren gaineko zergaren subjektu pasiboak Ogasunaren bulegoetara etor daitezke (Samaniego 14, beheko solairua), 09:00etatik 13:30era eta 15:15etik 17:15era, Gasteizko balioeztapan txosten berritik sortutako katastro balioen jakinarazpena jasotzera.

Jakinarazpen hori iragarki hau argitaratu eta hurrengo hamar egunetan jaso daiteke.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 5a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ